

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko ekainaren 11. IX. urtea. 2.608. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Alegia, Anoeta, Irura eta Zizurkilen atez atekoarekin hasiko dira

Hilaren 17an jarriko dute martxan hondakin biltzeta sistema berria, eta «aro berri bati» hasiera emango diote lau herrietan ◦3



JONE AMOARIZ

Lehiberri zentroaren aurkezpena, Tolosan

Joseba Barandiaran ekonomialariak hitzaldia emango du, gaur, 19:00etan, kultur etxean ◦2

Berastegiarek irabazi dute zizurkildarren aurkako herri kirol desafioa ◦6

Giza probako lehen saioan Urretxuk irabazi die Aiztondori eta Zizurkili ◦6

→ **200 urtez atzera.** Napoleonen tropek eta ingelesek Tolosan borroka egin zutenekoa ekarri zuten gogora Andia kultur elkarteko kideek; 200. urteurrena ospatu zuten egun osoz, eta 120 soldadu inguruk parte hartu zuten. Bestalde, eguraldi txarrari aurre eginez, aldarrikapen eta festa girorik ez da falta izan hainbat herritan. ◦4-5


Zarauzko Triatloiko bigarren postua, Agirresaroberentzat

Tolosaldeko Triatloi taldeko tolosarrak, Eneko Llanosen atzetik amaitu du proba ◦6

Inaxio Perurenak ezin izan du 303 kilo harria jaso

Leitzarrak herrian egin du marka saiakera; urtea amaitu baino lehen beste ahalegin bat egingo du ◦7

Tolosaldeko zazpi iheslariren elkarrizketa-dokumentala



Ostegunean
22:00etatik 01:00etara
egongo da ikusgai
tolosaldea.hitza.info
webgunean



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO
hitza info

→ Laburrak**Gure Txokoa eskopetero konpainiaren bilera, bihar**

GIZARTEA › San Joan jaietara begira, Tolosako Gure Txokoa eskopetero konpainiaren bilera izango da, bihar, 19:30ean elkartuko dira, Gure Txokoa elkartearen egoitzan, Korreo kalean.

Sorturen batzarra eta Miarritzerako autobusa

POLITIKA › Tolosako Sortuk batzarra egingo du, gaur, pleno aretoan, 19:30ean. Foro Soziallean atera ziren 12 gomendioen eztabaida egingo dute, batetik. Bestalde, *Herria dugu arnas* ekimena ere hipzide izango da, larunbatean Miarritzen izango den ekitaldi nazionalari begira; aipatzekoa da, autobusak antolatu dituztela, eta 09:00etan irtegan direla. Azkenik, eskualdeko inheslari egindako dokumentala proiektatuko dute.

Araba euskaraz festara joateko autobusak

EUSKARA › Igande honetan Amurrión ospatuko dute, *Mihian kili-kili* lelopean, Araba euskaraz jai. Hara joateko autobusak antolatu ditu Galzaundik; bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek, berriz, 12 euro. Autobusak 09:00etan irtegan dira zezen plazatik.

Alpinokoen irteera, Gernikara eta Elantxobera

MENDIA › Alpino Uzturrek irteera antolatu du iganderako. Txangoa Gernikatik Elantxoberainokoa izango da, eta Atxarre (312 m) eta Ogoño (305 m) mendiak igoko dituzte; sei orduko iraupena izango du ibilaldiak. Autobusa San Frantziskotik irtegan da, 07:30ean. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek 13 euro. Izen-ematea: 943 65 27 89 edo alpinouzturre@hotmail.com.

Izena eman daiteke jada, larunbateko 3x3 saskibaloi txapelketan

Pasa den astebururako aurreikusitako Saski Gaua, ekainaren 29ra aldatuko dutela jakinarazi du TAKEk

I. Urkizu

TAKEk urtero antolatzen duen 3x3 saskibaloi txapelketa larunbat honetan izango da, eta izen ematea zabalik da jada, <http://www.takesb.com> web atarian.

Helduen kuadrilla arteko Street Basket txapelketa hau XV.a izango da, eta betiko moduan San Frantzisko pasealekua bilakatu dute kantzua, 15:30etik 21:00etara.

Talde bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu izena emateagatik, eta parte hartzaile bakoitzari kamiseta bat oparituko diote. Horrez gain, honako sariak ere izango dira: irabazleentzat, 4 afari Fronton jatetxean eta jakien saski bat; bigarrenentzat 4 afari Orue erretegiaren saillakuntzat 4 afari Beti Alai jatetxean. Sari berezia, berriz, Photokafek eskainiko du.

Alebin eta infantilei dagokienez, berriz, 09:00etatik 13:30era bitarte jokatu dituzte norgehiagokak, Gernikako Arbola lorategietan. Irabazleek Shanti Kirolak erabiltzeko 400 euroko txartela eskuratuko dute, eta txapeldunordeek, berriz, 200 euroko txartela.

Saski Gaua ekainaren 29ra

TAKE saskibaloi klubaren 25. urteurrenaren harira, 4x4 Saski Gaua antolatu zuten, Euskal Herria plazan, pasa den ekainaren 8rako. Eguraldi txarra medio, ordea, egitasmoa atzeratzea erabaki zuten.

Horrela, elite mailako gizon-emakumeen partidak ikusteko aukera ekainaren 29an izango dela jakinarazi dute.

Krisiaren inguruko saioaren bidez aurkeztuko dute Lehiberri zentroa Tolosan

Joseba Barandiaran ekonomilariak saioa eskainiko du, gaur, 19:00etatik aurrera, kultur etxean

Itzea Urkizu

Tolosaldeko lehiakortasuna eta berrikuntza ardatz duen Lehiberri zentroaren jarduna herritarrei ezagutarazte aldera, hainbat saio antolatu dituzte eskualdean. Tolosaren txanda izango da, gaur, 19:00etatik aurrera, kultur etxean, eta Joseba Barandiaran ekonomilariak *Krisialdiko E(u)romena: zer aldatu da, ekonomia ala geu?* izenburupean, saioa eskainiko du.

Lehiberri zentroa pasa den martxoaren 21az geroztik zabalik da Apatta industrigunean, eta

bere helburuei begira, eskualdeko herritar, enpresa eta ikastetxe guztien zerbitzura dago. Besteak beste, lau lan ildotan aritzen dira: nazioartetzea, formakuntza, ekintzailetasuna eta lankidetzak.

Gaurko aurkezpena, beraz, zentroarekin eta egitasmoarekin lotura izan dezaketen herritarrei begirakoa da: ideia berritzaileen bat izan eta nola garatu ez dakitenez, langabezia egon eta nora jo ez dakitenez, ondo egiten dakiten lan hori garatzeko laguntza behar dutenez, formazten jarraitu bai baina nola ez dakitenez, nahiz enpresa barruan arlo berriak landu nahi dituztenentzat.

Hauekin guztiekin batera, besterik gabe Lehiberri zentroak zer eskaini diezaiokeen jakin nahi duten herritarrek ere informazio baliagarri jasoko dute kultur etxe-ko saioan. Izan ere, Ibai Iriarte To-

losako alkateak eta Joxe Luis Urdangarin Lehiberriko kudeatzaileak aurkezpena egingo duten arren, krisi ekonomikoaren inguruko hitzaldia izango da saioaren oinarri.

Eurogunea: onurak eta kalteak

Joseba Barandiaran ekonomilari izango da kultur etxe-ko saioko gidari, eta azken urteotako krisi ekonomikoak abiapuntu izango du, *Krisialdiko E(u)romena: zer aldatu da, ekonomia ala geu?* hitzaldian.

Hamarkada bat baino gehiago darama Barandiaranek, finantza sektorean lanean, eta komunikabideetan ere analisiak burutzen ditu. Horrela, sarri herritarrei hain urrunak suertatzen zaizkien kontzeptu eta ideiak ulergarriago azalduko ditu legazpiarrik, «krisiaren errealitate berriaz».

Joseba Barandiaran • Ekonomilaria**«Egoera hau, krisia baino, gure errealitate berria da»****I. Urkizu**

Ekonomiaren krisian aditua da, baina krisi ekologikoa eta baloreen krisia ere ikusten ditu. Hori eta gehiago hipzide izango ditu gaur. **Zertaz ariko zara gaurko hitzaldian?** Hitzaldian ekonomiaren ikuspegi pertsonal eta orokor bat ematen saiatuko naiz, bai geu eta baita ekonomia bera ere, aldatzen goazelako.

Krisia egungo protagonista da. Egoera honek noiz arte iraungo duela uste duzu?

Egoera hau, krisia baino, gure errealitate berria da. Krisi ekonomiko hor dago, Barne Produktu Gordinarekin neurtuta; baina krisi ekologikoa edota baloreen krisia ere, hor dago, ni hor sartuko ez naizen arren.

Eurogunean egoteak gauzak baldin-



Krisia herritarrei hurbilduko die Barandiaranek. HITZA

tzatzen dituela diozu. Hala ez balitz gaur egun egoera hobean al geundekete?

Eurogunean gaudela da kontua, eta itxura guztien arabera, bertan utsiko diogula. Testuinguru horretan, Espainiaren ohiko debaluazioen bideei uko egiten zaie,

baina onurak ere baditu era berean. Oro har, nire ustez, kalteak baino handiagoak dira onurak, baina jakitun izan behar dugu dugun kokaguneaz eta horrek ezartzen dituen baldintzez; diru publikoak zentzuz erabiltzea behar-tzen gaitu, besteak beste.

Lehiberri zentroak nola eragin diezaioke Tolosaldeko ekonomiarri?

Inguru hurbilean txertatutako ekonomia jarduerak bultzatuz, ekintzailetasunari lagunduz, enpresen nazioartekotasuna erraztuz, nahiz euren formazio beharrei erantzun hurbil eta azkar emanaz. Zeregin asko daude, eta enpresa txikien arteko sinergiak ere mamitu daitezke.

• tolosa@hitza.info

↓ Iragarki laburrak**LAN BILA**

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

ALOKAIRUAN

Etxea Peñiscolan. Peñismar, 2 helbidean, etxea alokairuan, 5-6 laguntzat. Itsas ertzetik 100 metrora dago, eta aire egokitu nahiz txirristadun igerilekua ditu. Deitu: 690 06 76 45.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Sei egun barru iritsiko da atez atekoa eskualdeko lau herritara

Ekainaren 17an jarriko dute martxan Anoeta, Alegia, Irura eta Zizurkilgo udalek hondakin bilketa berria

Asier Imaz

Ekainaren 17an jarriko da martxan Alegia, Anoeta, Irura eta Zizurkilgoen hondakin bilketa sistema berria: atez atekoa. Tolosaldeko Mankomunitateak azaldu dutenez, hilaren 17an herri hauek «aro berri bati» ekingo diote. Aldaketa honekin ondorengo helburua lortu nahi dela azaldu dute mankomunitateak: «Hondakinak egoki sailkatu, eta beraz, birziklapen datuak ahalik eta maila altuenera eramán. Zero zabor herri diren Orendain, Elduain eta Oresarekin batera, Tolosaldearen mapan, beste lau puntu berde margotuko dira laster».

Alegia, Anoeta, Irura eta Zizurkilgo alkateek urrats berri bat ematera doazela iragarri dute erabaki honekin, euren herritarren ongizatean, «salto kualitativo eder bat» izango dela azalduz. Amaia Azkue Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariaren esanetan, datuak eskuetan, atez atekoa da birziklatzeko orduan arrakastarik handiena ematen duen sistema: «Tolosaldeko herrietako birziklatze tasa %30aren bueltan dabil, eta lau herri hauetan, erabaki honekin, 50 puntu inguruko jautzia egingo dute».

Atez atekoak ohituretan aldatetaren bat ekarriko duela aipatu dute, baina horrekin batera, ziur daude «zailtasun handirik gabek», herritarrek sistema berrira moldatuko direla: «Behingoz, atez atekoa zuzen-zuzenean benetan zer den egiaztatuko da, eta aldaketa hau hobetarako izango dela ziur gaude».

Anoeta, Irura, Zizurkilgo eta Alegiako alkateek, Tolosaldeko Mankomunitateak bezala, atez atekoari aukera bat emateko eskatu dute. Amaia Azkuek azaldu duenez, hemendik sei hilabetetara, parte hartze prozesu baten bidez, emaitzak aztertu, herritarren asetzetzea ezagutu, eta beharrezko moldaketak egingo dituzte udalek herritarrekin.

Aurrez, herritarrei dei egiten diete lau udal hauetako ordezkariak kubo sortak eta gidak jasotzera joateko. Bilketa egiteko beharrezkoak diren edukiontzien banaketa egiten hasita daude dagoeneko. Alegian, adibidez, kuboen % 90 banatuak dituzte jada.

«Informazio okerra»

Zizurkilgo Udalak bere webgunean www.zizurkil.eu-n azaldu duenez, zintzilikarioen legezko-tasunaz herrian banatzen ari diren oharrak dioena «erabat okerra» da. Webgunean jartzen duenaren arabera, Zizurkilgo Udalak argi utzi nahi du eskumena duela herri altzariak horretan ezartzeko, horrela jasotzen duelako Zizurkilgo plan orokorraren testu laburtuak.



Zizurkil, Anoeta, Irura eta Alegiako udal ordezkariak atez atekoaren aurkezpen ekitaldian. A. IMAZ

Amasa-Villabonako Udalari eskerrak eman dizkiote

Zero Zabor taldeak udalaren lana goraiatu du hondakin gaiaren inguruan, eta babes manifestua aurkeztu du

A. Imaz

Amasa-Villabonako Zero Zabor taldeak ekitaldi jendetsua antolatu zuen iragan ostiralean Gurea aretoan. Bertan, udalari eskerrak eman nahi izan zizkion, hondakin gaiaren inguruan egin duen lanagatik, eta bilketa sistema aldatzeko erabakiagatik: «Udal taldearen ausardia txalotu nahi dugu, erabaki honek ekarri dien prezio politiko edo pertsonalaren gaitetik, gure ustez zuzena dena defendatu dutelako». Horrez gain, errauste planta bertan behar geldidakin lanean aritzea ere goraiatu zuten zero zaborreko kideek: «Udalak herritarroki azalpen guztiak emateko egin duen esfortzua nabarmendu nahi dugu. Lehen aldia da, hondakin gaia herritarrekin eztabaidatu dena, eta lehen aldia da, alkate



Goian, Amasa-Villabonako ekitaldia, eta behean, Lizartzan dantzan. HITZA

tu dena, eta lehen aldia da, alkate bati gure iritzia aurrez aurre eman ahal izan dioguna». Birziklapenari aukera bat emateko eskatuz, Amasa-Villabonako Zero Zabor taldeak manifestua kalera-

tu du, eta herritarrek berau sinatzeko aukera dute.

Bestalde, Lizartzara, Zero Zabor taldearen eskutik Mundumob ekimena iritsi zen ostiralean, pailazo, merienda eta jai giroan.

Irudia ◊ Ibarra / Tolosa



AUZO KONPOSTA IKASTAROA ETA INAUGURAZIO JAIA

Aste Berdea 2013 ekimenaren barruan, Ibarra, konposta nola egiten den erakutsi zuen Sporako kide batek iragan ostegunean. Udalak Azkue auzoan eraikitako auzo konposta gunea martxan jartzeko, bizilagun ho-

rientzako zuzendu zuen ikastaroa. Bertan, konposta egiteko beharrezko oinarriak ikasi zituzten. Bestalde, Tolosaldeko Larramendi auzoan, ostiralean, auzo konpostagailuen inaugurazio festa egin zuten. Konpostaren le-

kukoa Larramendiko bizilagunek jaso zuten, Karlos Irazu artista larrauldarren eskutik, eta hauek, Amarozkoei pasako diete. Arkauten dagoen auzo konposta gunean 50 familiak egingo dute konposta. HITZA



Leitza ◉ Golen, Maxurenea enakaren ondok igarotzen. Behain, plazan, sinadurak bitzen. [it](#)



Tolosa ◉ Plaza Berria ospatu zuen Emaik Independentzia Eguna. Irudian, bazkaloetan, jolasen. [it](#)



Leitza ◉ Aurtengo Kultur Aroa V. Sagardo Eguna irudirik bukatu du. [it](#)

Euriari aurre eginez, Maxurenea itzultzeko manifestazio jendetsua egin dute eta Alurr eta Independentzia egunak aterpean ospatu dituzte.

Aldarrikapen eta festa giroa, euripean

Iligo Terradillos

Euria izan da asteburuko protagonista eta bat, azken asteetako bezala, Ekitaldiak burutzeko traba izan den arren, euriari aurre eginez manifestaziook, dantza emanaldiak nahiz mendit ibilaldiak... guztiak egin dituzte.

Leitza, asteorako, 300 lagun inguru elkaru ziren larunbat eguerdian Maxurenea herriari irudien eskatuko manifestazioan. Festa giroa eta aldarrikapen elkaru ziren bertan. Herriari itzula egin zieten Guardia Zibila-ren begiradapean, eta Maxurenearen eta guardia zibilen aldamenetik igaro ostean herriko plazara itzuli ziren. Bertan, Maxurenea Herriatzen plataformako kideek Nafarroako parlamentuan laster egingo duten agerraldiaren berri emateko baino, herriarrak gonbidatu zituzten sinatzaera eta udalak antolaturiko Maxureneari buruzko parte hartze prozesuan eta egingo diren ginerako ekimenetan parte hartzaera. Arratsaldean, berriz, Sagardo Eguna izan zuten Leitza, Kultur Aroari amakiera emanaz.

Aldarrikapen eta jai giroa uztartu ziren, baita ere. Ermaik antolatuta larunbatean ospatu zuten Independentzia Eguna. Bideo emanaldia eta hitzaldia izan zituzten goizean, eta ondoren, 80 lagun inguru elkaru ziren plaza Berria bazkaltzeko. Bazkariaren ostean, giro polita izan zen herrien arteko olimpiadetan, eta festak kalejirarekin, zabagiarloarekin, eta gaueko kontzertuekin jarraitu zuten.

Aldarrikapenak izan ziren, baita ere, Tolosan ostiralean. Izan ere, Israelek Jerusalem okupatu zuala 45 urte betetzen zirenean, Jerusalemen atzetik askatasuna eskatzeko elkarretaratze egin zuten hainbat herriarrek Libanarri elkartearen.

Euriaren eruz, bestalde, larunbateko Alurr Eguneako emanaldia Barrako kirodegian lekutu zituzten, baita, hala ere, jende ugari gerturatu zen Alurreko dantarien sasoan gozotzeri. Goizean, gaztetxoak aritu ziren, eta elkarrekin bazkaltu eta gero guzteen txanda izan zen.

Aresoarrak, berriz, mendit ibilaldi egiteko baliatuzten larunbata. 16 lagunek osaturiko taldeak egin zuten Aresotik Goizetarako bidea, 5 ordu inguruan. Parte hartzaileek «oso gustura» egin zuten bidea, eta Goizetara iristean bazkari ederra egin zuten.

Bestalde, herenegungoari dagokionez, aspaldiko ohitura berreskuratu, Langurre Eguna ospatu zuten Alegian. Jende ugari eta giro polita izan zen pilotalekuan. Gauri bako antolatzaileei omenezko ere egin zieten.

Tolosan, berriz, Napoleonen tropek eta ingelesek Tolosan borroka egin zuteneko unea gogoratu zuten, 200. urteurrenaren harira. Andia kultur elkarteak antolatuta, hirugarrenez egin dute alardea. 120 soldadu inguruk hartu zuten parte.

@ Aldeko guztiak, argazkiak edota bideoak sarean daude ikusgai:

tolosaldea.hitza.info



Tolosa ◉ 120 soldadu inguruk parte hartu zuten, zaldi eta guzti, Andia kultur elkarteak antolaturiko Alarde Napoleonkoan. Ikusmin handia sortu zuen. [it](#) ENE ARONARIZ/WWW.GAECALANEA



Ibarra ◉ Ibarako kaleetatik kirodegira pasa behama izan zuten euriaren eruz Alurr Eguna. Goizean gaztetxoak aritu ziren dantzan, eta arratsaldean gazteak. [it](#)



Alegia ◉ Gauri bako haura berreskuratu, Langurre Eguna ospatu du. [it](#) AMN/102



Tolosa ◉ Jerusalemen atzetik askatasuna eskatu zuten Libanarri elkarteak. [it](#) WWW



Leitza ◉ Aurtengo Kultur Aroa V. Sagardo Eguna irudirik bukatu du. [it](#)



Areso ◉ Aresotik Goizetarako mendit ibilaldia egin zuten aresoarrak. [it](#)

Aimar Agirresarobek bigarren postua lortu du Zarauzko Triatloi proban

Marmokengatik igeriketako probarik ez zen izan; tolosarrak Eneko Llanosen atzetik amaitu du proba

Mikel Iraola Tolosa

Aimar Agirresarobe tolosarrak bigarren egin zuen eguraldi txarrak guztiz baldintzatutako XXVII. Zarauzko Triatloi proban. Eurria eta itsasoa izan ziren eguneko protagonista nagusiak. Aste osoan zehar, marmoka txikiz bete zen Zarauzko hondartza, eta kirolariak arriskuan jar zitzaizkela ikusita, antolatzaileek uretako zatia bertan behera uztea erabaki zuten. Hori gutxi balitz, duela bi aste Getaria eta Zumaia arteko errepidean zulo bat eragin zuen denboraleak, eta txirrindularitza saiko ibilbidea ere aldatu behar izan zuten antolatzaileek.

Gauzak horrela, duatloi formatua eman zioten probari, eta txirrindularitza eta korrika saioak izan zituen soilik. Hasteko, herriaren barneko bederatzi kilometroko ibilbide bati bi bira eman zizkion lasterka; ondoren, 82 kilometro egin zituzten bizikletaz; eta amaitzeko berriro ere korrika saioa izan zuten, baina, aurreikusitako hogeitaz hamar kilometro egin beharrean, hamalau egin zituzten.

Gizonezkoetan, Eneko Llanos gasteiztarra izan zen garaile. Triatloilari profesionala proba irabazteko faborito zen, eta 3:42:50 behar



Aimar Agirresarobe, Eneko Llanos eta Mikel Elgezabal, Zarauzko helmugan. HITZA

izan zituen ibilbide osoa betetzeko. Agirresarobe tolosarrak Llanos baino ia sei minutu gehiago behar izan zituen. Azken saiora aurreko taldearekiko desabantailan iritsi zen, baina korrika saio ona burutu, hauek harrapatu eta atzean uzteko gai izan zen. 3:48:24an geratu zuen erlojua. Podiumeko hirugarren lekuan, Mikel Elgezabal gernikarra sailkatu zen.

Emakumezkoen mailan, berriz, Catriona Morrison eskoziarra

izan zen txapelketa. Radka Vodickoba txekiarrak lortu zuen zilarrezko domina, eta Estefania Gomez kantabiarra izan zen hirugarren.

Urte oparoa izaten ari da tolosarrentzat. Maiatzean, Deban, Euskadiko Sprint Triatloi txapelketa izendatu zen lehenengo, eta Bilboko lasterketa irabaztea lortu zuen ondoren. Zarauzko bigarren postuarekin sasoi onean dela erakutsi du Agirresarobek.

↓ Sailkapenak

GIZONEZKOAK

1. Eneko Llanos	3:42:50
2. Aimar Agirresarobe	3:48:24
3. Mikel Elgezabal	3:48:40

EMAKUMEZKOAK

1. Catriona Morrison	4:09:16
2. Radka Vodickoba	4:16:20
3. Estefania Gomez	4:34:28

Aiztondo eta Zizurkilek ezin izan zuten mendean hartu Urretxuko taldea

Datorren ekainaren 22an jokatuko den bigarren kanporaketak erabakiko du zein bi taldek jokatuko duten finala

M. Iraola

Urretxuk irabazi du Gipuzkoako Taldekako Giza Proba Txapelketa B multzoko lehen kanporaketa, Aiztondo eta Zizurkilgo taldeak garaitu ondoren.

Aiako probalekuan jokatutako saioan, urretxuarrak izan ziren nagusi, hogeitaz hamar kilometro harriarekin 52 plaza, bi zinta eta 2,23 metro bete ostean. Plaza bat gutxiago egin zuen Aiztondoko taldeak: 51 plaza, zinta bat eta 1,23 metro, hain zuten. Hirugarren zizurkildarrak sailkatu ziren, 47 plaza eta 0,63 metro beteta.

Bigarren kanporaketa, ekainaren 22an jokatuko dute Urretxuko probalekuan, eta bi kanporaketen artean puntu gehien lortzen dituzten bi taldeak igaroko dira finalera.

Abuztuaren 4an Aian jokatuko den final horretan, A multzoko beste bi talde izango dira. Deba, Mendaro, Orrio eta, pasa den urteko garailea, Berrobi izango dira nor baino nor. Lehen kanporaketa ekainaren 29an jokatuko dute, eta bigarren, berriz, uztailaren 13an.

• tolosaldean@hitza.info

Irudia > Berastegi



KIROL DESAFIOA, BERASTEGIARRENTZAT

Giro polita izan zuten larunbatean Berastegi eta Zizurkilen arteko herri kirol deman. Euriaren ondorioz, pilotalekuan egin behar izan zuten azkenean, eta 200 lagun inguru gerturatu ziren ikuskitza bertatik bertara ikustera. Azkenean, doi-doi

izan bazen ere, etxeontzat, berastegiarrentzat, izan zen garaipena. Kirol desafioaren ondoren, herriko elkarteak bazkaldu zuten, eta arratsaldean pintxo potea egin zuten bi herrietako kideek elkarrekin. MARIA JESUS LABAEN

Irudia > Irura



EMAKUMEA ERE PILOTARI

Larunbatean, VII. Emakume Pilotari Eguna ospatu zuten Iruran. Eskola adineko neskek, emakume federatuek eta txapelketa herrikoiek hainbat partida jokatu zituzten. XX. mendeko raketista profesional izandakoei omenaldia ere egin zieten. 80 lagun inguru izan ziren bazkaltzen, eta bertso pilota eta dantzaldia ere izan zituzten. I. TERRADILLOS



Perurenak ezin izan zuen 303 kiloko harria sorbaldan berdindu. JONE AMONARRIZ

Inaxio Perurenak ezin izan du 303 kiloko harria jaso

Gutxi falta izan zitzaion helburua betetzeko, eta urtea amaitu baino lehen beste ahalegin bat egingo duela esan du

M. Iraola Leitza

Inaxio Perurenak ez du 303 kiloko harria jasotzeko helburua bete. Indar erakustaldi handia egin arren, leitzarrak ez zuen harria sorbaldan berdintzea lortu.

Jende ugari bildu zen Leitzako Amazabal pilotalekuan, Perurena gazteak bere buruari luzatutako erronkak deituta. 300 kiloko harria jaso eta ia lau hilabetera, hiru kilo gehiagoko harria altxa nahi izan zuen.

200 kilokoarekin egin zituen beroketa lanak. Lehenengoa, gerriraino altxa zuen, eta bi jasoaldi egin zituen ondoren. Jarraian, 250 kilokoarekin probatu zuen. Gerriraino ekarri eta bota zuen. Hurrena, jada, 303koarekin egin zuen.

Epaileek txistua jo bezain laster heldu zion harriari Perurenak indarrez. Gerriraino ondo altxa zuen harria, baina buelta eman eta bularraldera eraman beharreko unean zailtasun ugari izan zituen leitzarrak.

Behin buelta emanda, gora eramatea are gehiago kostatu zitzaion. Bularrera eramateko saiakeran energia asko galdu zuen eta indar falta izan zuen ondoren. Lau kolpe eman zituen, baina harriak kostata egiten zuen gorantz. Bostgarren kolpean, sorbaldan berdindu nahi izan zuen, baina harriak gain hartu zion, eta epaileek ez zuten balekotzat eman altxaldia.

«Beroketa lanetan oso ondo sentitu naiz, harriak erraz eta segurtasun handiz altxa ditut. 300ekoarekin ondo hasi naiz, baina buelta ematerako orduan ez aurrera ez atzera geratu naiz, eta kontzentrazioa galdu dut. Kolpe gehiegi behar izan ditudala ikustean ez naiz buruarekin aritu», adierazi zuen saioa amaitzean.

Hau guztia, 23 segundoan egin

zuen, eta lau minutu gehiago gertatzen zitzaizkion beste ahaleginen bat egiteko. Hala ere, nekatuta eta indarririk gabe ikusi zuen bere burua Perurenak.

Denbora amaitu baino lehen, laguntzaile gisa aritu ziren bere anai Xabier eta Isak Martinezi beste jasoaldirik egingo ez zuela adierazi zion. Epaileek txistua jo arte ez zuen pilotalekua utzi leitzarrak. Bertan bildu zirenek, txalo artean agurtu zuten, egindako indar erakustaldiari eskerrak emanez.

2014a baino lehen, berrito

Inaxio Perurenak, bere aita Iñaki eta Mieltxo Saralegik soilik lortu duten marka gainditzeko lanean jarraituko duela esan zuen: «Abuztuan hasi nintzen prestatzen, eta gorputzari astindu handia eman ondoren orain deskantsatzeko garaia da. Udako erakustaldiak egin eta gero berriro ere prestatzen hasiko naiz, urtea amaitu baino lehen beste saioa bat egin nahi baitut».

● leitzaldea@hitza.info

Jaunarenak aurrera egin du San Fermin Txapelketan

Herriarteko txapelketan Tolosak eta Bidegoianek aurre hartzea lortu dute; Zizurkilek berriz, irabazi egin beharko du.

M. Iraola

Jon Jaunarenak aurrera egiten jarraitzen du. Pasa den urtean bigarren mailan hiru txapelak irabazi ondoren, aurten itxura oso ona eman du buruz buruko txapelketan, beste leitzar batek, Bengoetxeak kanporatu zuen arte. Igandean, bada, Eibarko Astelena frontoian San Fermin txapelketako lehen kanporaketan erraz gailendu zitzaion Ezkurdiari.

Partida hasieran, Arbizuko pilotaria aurreratu zen. 4-6ko markagailua izatera iritsi zen Ezkurdi bere alde, baina Jaunarenak sakea berreskuratu eta 15 tanto egin zituen jarraian. Guztira, zazpi tanto egin zizkion sakez. Azkenean, 35 minutuko partidaren ondoren, 22-9 amaitu zen.

Txapelketako hurrengo aurkaria Julen Retegi izango du. Hau mendean hartuko balu, Abel Barriola izango du hurrengo aurkaria, eta honi ere irabaziko balio, finala jokatu aurreko azken partida Martinez Irujoren aurka jokatu beharko luke.

Tolosa eta Bidegoian, aurretik

Herriarteko Pilota Txapelketako joaneko partidetan, aurre hartu dute Tolosa eta Bidegoiango taldeek. Zizurkilek, berriz, gutxienez bi partida irabazi beharko ditu itzuleran aurrera egin nahi badu.

Tolosarrek Hernaniren aurka kadete eta jubenil mailako partidak irabazi zituzten. Gazteenek 22-10 irabazi zuten; jubenilek, ostera, 22-16ko emaitzarekin egin zuten. Helduen mailan, erraz irabazi

zuen Hernanik, 22-4 gailendu ondoren. Gauzak honela, tanto kopurua berdinduta dira bi taldeak, baina Tolosako taldeak bi partida irabazi dituzte, aurretik da.

Gauzak hobeago daude Bidegoian aldean. Astigaragaren aurka jokatu zituzten partidak, eta tolosarren moduan, kadete eta jubenil mailetan irabazi zuten, 22-10 eta 22-18ko emaitzekin. Helduen mailan, 17-22 galdu zuten.

Zizurkildarrek, partida bakarra irabaztea lortu zuten Oiartzunen aurka, kadete mailakoa. Garin eta Arregi 22-10 nagusitu ziren. Baina beste bi partidetak porrotek, eta bertako tanto aldeek gauzak zail jartzen dizkiete zizurkildarrei. Jubeniletan 14-22 galdu zuten, eta helduen mailan, berriz, 5-22.

Asteburu honetan jokatuko dira itzulerako partidak. Ostiralean jokatu du Bidegoianek etxean, 19:30ean. Tolosarrek, Hernanin jokatu dute igandean, hamarretan. Arratsaldeko lauetan jokatu du Zizurkilek Oiartzuneko pilotalekuan.

Bestealde, BERRIA Txapelketatik at geratu da Bidegoian, Aurrera Saiatzaldearen aurka galdu ondoren. Kadeteetan, 7-4 amaitu zen partida, jubeniletan, 22-15 galdu zuten, eta helduen mailan, 19-22 irabazi.

Ogiberri txapelketa

Miguel Soroaren oroimenezko I. Ogiberri Txapelketako lehenengo finalaurrekoak jokatu ziren asteburuan. Kadete mailan, Bakaikua eta Urdanpilletak 22-12 irabazi zioten Laso eta Oscozek osatutako bikoteari. Jubeniletan, Espinal eta Ibarrondok 22-10 irabazi zieten Labaka eta Agirrerri. Helduen mailan, berriz, Arrieta eta Gorrotxategi 22-11 gailendu zitzaizen Jaka eta Arratibelek osatutako bikoteari. Datorren asteburuan bigarren finalaurrekoak jokatu dira.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Bidegoiango ordezkariak jaso zuten datorren urteko festa antolatzeko lekukoa, Olaberrian. GOIERRIKO HITZA

Eskola Txikien lekukoa Bidegoianek hartu du

Olaberriak pasa dio Eskola Txikien festa antolatzeko lekukoa; 26 urte geroago, berriz egingo da bertan

Eneritz Maiz

Olaberrian ospatu zen 26. Eskola Txikien Festa. Eguraldiak lagundu ez arren, eskola txikietako hainbat ikasle, irakasle eta guraso gerturatu ziren Olaberriara. Oholtza gainetik ere jende ugari pasa zen, eta horien artean izan ziren Bidegoiango ordezkariak.

Datorren urtekoa, Gipuzkoako Eskola Txikien 27. Festa izango da. Bidania-Goiatzen ospatuko da. Bigarren aldiz antolatuko dute jaiak, bertan ospatu baitzen lehenengo festa orain dela 26 urte ere.



Jende asko gerturatu zen egun osoko festara. HITZA

Beste behin, eskola txikiek, herri eta auzo txikien biziraupenean duten garrantzia aldarrikatu zuten, adar, txalaparta eta trikiti doinuez inguratuta. Eskola txiki guztiak ordezkatuak izan ziren, eta guztiak aieratu zuten mezuren bat. Urte osoko lana erakutsi zuten olaberriarrek. «diru la-

guntza murrizketak nabarmenak izan diren arren, sormena eta alaitasunak izan dira nagusi nabarmendu zuten antolatzaileek.

Txikien handitasuna, begi bistan geratu zen beste behin, eta datorren urtean ere aldarrikapen bereberkin izango dira.

• tolosaldean@hitza.info

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, 1. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Leitza.** Plaza M.T. Elbaren 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Rafting-a Gallego ibaian famili osoarentzat

UR PIRINEOS
A132 errepidea - 38. kilometroa
Munillo de Gallego 22808 ZARAGOZA
Tel.: 974-38 30 48 / 660-47 53 43
www.urpirineos.es

Prezioa 23€

www.mauka.eu **berria** taldea

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ibarra Udalak lan poltsa bat sortuko du lehiaketa-oposizio bidez, udaleko obra lan-taldean sortzen diren beharrei erantzuteko. Eskeraek aurkezteko epea, hilaren 20a artekoa da, eta udaletxeko erregistro bulegoan egin beharko da.
- **Gaztelu.** Ekainaren 21ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan emanaldia izango da Gazteluko jolastokiaren alde. Sarrerak salgai 6 euroren truke: Tolosako Orbelan, Ibarra Sendi Ekintzan, Alegiako Route 33n eta Gazteluko udaletxean.
- **Tolosa.** Sortuk batzarra egingo du Tolosako udaletxeko pleno aretoan, 19:30ean. Alde batetik, Foro Sozialean atera ziren 12 gomendioen eztabaida izango da. Bestetik, Herri dugu arnas, Miarritzeko ekitaldi nazionala dela eta, eskualdeko iheslariari egindako dokumentala eskainiko da.
- **Tolosa.** Miarritzen iheslarien aldeko ekitaldia ekainaren 15ean izango da. Bertara joateko autobusak aterako dira, eta apuntatzeko aukera ohiko lekuetan izango da. 09:00etan aterako dira.

Agurrak



Urte askoan!
Amalur Ayerza Labaien (Amezket). Atzo bi urte bete zituelako, zorionak eta muxuak familiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Egin HITZAren HARPIDEDUN
ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte, ETA JASO:

Barrenetxe
www.barrenetxe.com
sasoiko barazkien otzara

Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info